BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3214

EBAZPENA, 2013ko ekainaren 17koa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, entitate pribatuek EAEn dituzten lantokietan 2013an euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko diru-laguntzen balorazio-batzordea osatzen duena.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak, 2013ko maiatzaren 2an, entitate pribatuek EAEn dituzten lantokietan 2013an euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko diru-laguntzak emateko modua arautu zuen agindu baten bidez (LanHitz deialdia). Agindu hau, 2013ko maiatzaren 6an argitaratu zen EHAAn.

Aurkeztutako eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko osatuko den balorazio-batzordearen osaera era honetan arautzen du aipatu Aginduaren 16. artikuluak:

16. artikulua.– Balorazio-batzordea.

(...)

a) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria, batzordearen buru izango dena, edo haren ordezkoa.

b) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria, edo haren ordezkoa.

c) Foru administrazioetako hizkuntza politikaren ardura duen saileko teknikari bat, gutxieneko maila zerbitzu buruarena delarik.

d) Sozioekonomia arloko bi aditu.

e) Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzako Erabilera-planak Sustatzeko arduraduna, edo haren ordezkoa.

f) Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako Dokumentazio eta Informazio Zerbitzuaren arduraduna edo haren ordezkoa.

g) Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzako teknikari bat, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak izendatutakoa. Teknikari horrek idazkari-lanak egingo ditu eta hitza izango du, baina ez botorik.

Ondorioz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Entitate pribatuek EAEn dituzten lantokietan 2013an euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko diru-laguntza deialdiaren balorazio-batzordeko kideen izendapena egitea.

Bigarrena.– Honako hauek dira 2013ko maiatzaren 2ko Aginduaren 16.1 xedapenaren arabera izendatutako balorazio-batzordeko kideak:

a) Jorge Giménez Bech jauna, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria, batzordearen buru izango dena. Ordezkoa, Jon Aizpurua Espin jauna, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzako Plangintza eta Azterlanetako arduraduna.

b) Ángel Lobera Revilla jauna, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria. Ordezkoa, Jokin Azkue Arrastoa jauna, Euskara Sustatzeko zuzendaria.

c) Patxi Alberdi Asteinza jauna, Bizkaiko Foru Aldundiaren Hizkuntza Gizarteratzeko Ataleko burua.

d) Martin Auzmendi Ayerbe jauna eta Jon Etxabe Goñi jauna, sozioekonomia arloko adituak.

e) Koro Urkizu Miner andrea, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzako Erabilera-planak Sustatzeko arduraduna. Ordezkoa, Araceli Díaz de Lezana andrea, Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako Estandarizazio Zerbitzuko arduraduna.

f) Edurne Basoa González andrea, Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako Dokumentazio eta Informazio Zerbitzuaren arduraduna. Ordezkoa, Ane Crespo Calvo andrea, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzako EBPNren jarraipenerako arduraduna.

g) Edurne Pérez de San Román andrea, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzako teknikaria, eta Batzorde honen idazkaria.

Hirugarrena.– Zerbitzuen ondoriozko ordainketak.

Administraziotik kanpoko balorazio batzordeko kideek dietak edota konpentsazioak jasotzeko eskubidea izango dute organo horretan parte hartzeagatik izandako gastuengatik, indarrean dagoen araudiaren arabera. Ordaindu behar diren kopuruak kalkulatzeko oinarri gisa hartuko dira kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan ezarritako kopuruak.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Administrazio-bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita. Bestela, zuzen-zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazio Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, honako Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 17a.

Hizkuntza Politikarako sailburuordea,
PATXI XABIER BAZTARRICA GALPARSORO.